



■ ERRIGORA

Saskiak erosteko aukera

Errigorak martxan jarri du udazkeneko kanpaina. 50 eurotan, Nafar hegoaldeko produktuez osatutako saski eder bat eskuratzeko aukera dago. Ekarpeneren %25a Nafarroa hegoaldeko euskalgintzara joango da. Saskiak eskatzeko epea azaroaren 12ra arte da. Astigarragan, eskolan, AEKn eta Zipotzan eskatu daitezke. ■

■ JOSTE IKASTAROA

Izena emateko azken eguna, bihar

Oinarrizko joste konponketak egiteko ikastaroa izango da azaroaren, kultur etxean (azaroko asteazkenetan, 18:00-20:00). Izena emateko azken eguna, bihar. ■

■ PARKETARRAK

Azken saioa, gaur

Parketarrak egitasmoaren azken saioa izango da gaur. 17:00etatik 18:00etara eskolako patioan elkartuko dira, euskeraz jolasteko. 2-5 urteko haurrak dituzten familiei eta 6-9 urteko umeei zuzendua da. Irekia da. ■

■ AEK

Bihar, Gurasolagun aurkeztuko dute

AEK euskaltegiak, Gurasolagun egitasmoa aurkeztuko du bihar. Eskolako patioan izango da arratsaldeko 17:00etan. Animatzeko dei egiten diete gurasoei. ■

■ PRESO ETA IHESLARIAK

Kalera ateratzeko deia, ostiralean

Hilabeteko azken ostirala da etzi eta kontzentrazioa egingo da preso eta iheslarien eskubideak aldarikatuz. Kalera ateratzeko dei egiten diete herritarrei. 20:00etan, Joseba Barandiaran plazan. ■

■ GIZARTE ZERBITZUAK

Diru laguntzak eskatzeko, bi egun

Gizarte zerbitzuetako diru laguntzak eskatzeko, bihar da azken eguna. Interesatuak udaletxeko Erregistrotik edo Gizarte Zerbitzuetako sailetik pasa daitezke informazioa jasotzera. ■

■ KULTUR ANIZTASUNA

Bilera irekia, kultur aniztasunari buruzko diagnostikoa egiteko

Plangintza egingo du Udalak kultur aniztasuna gestionatzeko. Herritarren parte hartzearekin osatu nahi du plangintza eta hiru bilera edo lan saio antolatu ditu. Gaur (18:00), lehenengoa.

ASTIGARRAGAN, partehartze prozesu bat jarri du martxan Udalak aniztasunaren eta jatorri desberdineko pertsonen arteko elkarbizitza nola landu zehazteko. Plangintza egin nahi du, herritarren partaidetzarekin eta ekarpenekin, eta hiru bilera edo lan saio antolatu ditu. Gaur izango da lehenengoa, kultur etxeko areto nagusian (18:00-

20:00). Halaxe azaldu dute: «Azken urteotan Astigarragatik kanpo jaiotako jende asko etorri da gure artera bizitzera, dela inguruko herrietatik, dela bestelako herrialde batzuetatik. Aberastasun horretaz jabetuta, kultur aniztasuna gizarteratzeko, plangintza bat osatu nahi dugu, herritarrekin elkarlanean».

Gaur, aniztasunaren diag-

nostikoa landuko dute, besteak beste.

Talde bat sortu

Prozesuaren bidez, Udalak herriaren kultur aniztasunaz jabetu nahi ditu herritarrek, eta elkarren berri izateko eta elkar ezagutzeko topaleku bat sortu nahi du. «Aurrera begira gaia nola landu behar den ere definitu nahi du prozesuak,

zein ekintza egingo diren zehaztu, beharrak eta erronkak identifikatu, eta ahal dela talde iraunkor bat sortu, gaia lantzen jarraitzeko», azaldu dute.

Partehartze prozesua, Elhuyar Aholkularitzak gidatuko du. Hurrengo lan saioak ere asteazkenetan izango dira: azaroaren 12an eta 26an. ■

■ 28AK ERE LIBRE! EKIMENA

Torturaren aurka, kontzentrazioa bihar

Joseba Barandiaran plazan izango da 20:00etan. 28 gazteen aurkako epaiketak bihar jarraituko du.

ASTIGARRAGAN, torturaren aurkako kontzentrazioa izango da bihar. Arratsaldeko 20:00etan izango da Joseba Barandiaran plazan. Lema: *Stop tortura! 28ak libre! Epaiketa politikorik ez!*

Bihar jarraituko du Madrilan, Espainiako Auzitegi Nazionalan, Julen Zuaznabar eta beste 27 gazteen aurkako epaiketak. Segiko kide izatea leporatuta ari dira epaitzen. Polizien deklarazioekin

jarraituko dute. Gazteek, jasandako torturak salatu zituzten euren deklarazioetan eta biharko egunez, torturaren aurka mobilizatzeko dei egin dute, herri eta auzoetan.

Azaroaren 8an, berriz,

Iruñerriko Herri Harresiak mobilizazioa deitu du, Iruñean. Martxa laranja egingo dute eskubide zibil eta politikoen alde eta epaiketa politikoak bukatzeko eskatuz. 17:30etan, Antoniutitik. ■

■ HARITUZ ELKARTEA

Zine afrikarra eskainiko dute, ostiralero

Ostiral honetan izango da aurreneko emanaldia. 'Mamnou' dokumental egiptoarra botako dute, 18:30etatik aurrera. Dohainik da.

ZINE emanaldi berezia antolatu du Harituz elkarteak, kultur etxean. Zine afrikarra eskainiko dute datozen 5 ostiraletan, doan. Aurreneko emanaldia ostiral honetan izango da (18:30). *Mamnou* (debekatua) dokumental egiptoarra botako dute. Herrialde hartako arau eta debekuei buruzkoa da.

Beste lau dokumental edo film Azaroaren 7an, *Barakat* izango da ikusgai (20:00). Argelia-Frantziako pelikula bat da, desagertutako kazetari baten bilaketari buruzkoa. Azaroaren 14an, *Virgen negra* emango dute (20:00). Espainia eta Mozambiken eginga da. Mozambikeko emakumeen sexualitateari buruzko doku-

mentala da. Azaroaren 18an, *Mme. Brouette* ikusteko aukera izango da (18:00). Senegalekoa da. Bi senar gogorretatik aldeduntako bi emakumezkori buruzko filmea da. Eta azaroaren 21ean, *Imani* emango dute (20:00). Uganda-Suediako filma da, hiru pertsonen ez ohiko egun bati buruzkoa. ■

LIBURUDENDA-OPARIAK

Anuska

kale Nagusia, 62
943 55 31 97
20115 ASTIGARRAGA

MENDI&UZE OKINDEGIA, S.L.

Troia Ibilbidea, 14 - Pab. 6 - Ergobia
20115 - ASTIGARRAGA

Tel 943 55 15 38
(J) 630 38 79 10
(S) 629 66 69 77

☎ **TELEFONOAK** | **Taxiak:** 943 55 52 77 | **Udaltzaingoa:** 092 | **IDYA:** 943 46 46 22 (Hernani)

🚌 **Autobusak:** Areizaga - 943 45 27 08 | **Anbulatorioa:** 943 33 56 44

🏠 **FARMAZIAK Egunez:** | **ASTEAZKENA Chucla** Kardaberaz 48, Hernani - 943 551793 | **IOSTEGUNA Castilla** Urbietan 7, Hernani - 943 552941 | **IOSTIRALA Chucla** Kardaberaz 48, Hernani - 943 551793 | **ILARUNBATA Aizpuru** Latsunbeberri 11, Hernani - 943 336077

🏠 **IGANDEA Aizpuru** Latsunbeberri 11, Hernani - 943 336077 | **IASTELEHENA Castilla** Urbietan 7, Hernani - 943 552941

🏠 **IASTEARTEA Aldabe** Perkaiztegi 8 (Antziola), Hernani - 943 336022 | **Gauetz: Aizpuru** Latsunbeberri 11, Hernani - 943 336077

EGURALDIA
GAUR
Goizean lainoak azalduko dira, baina pixkanaka ostarte ederrak zabaltzen joango dira eta arratsalderako zerua nahiko garbi izango dugu. Hegoaldeko haizea ibiliko da. Min.14° / Max.25°.

BIHAR
Uda sasoiako giro polita izango dugu. Zerua garbi egongo da egun osoan eta hegoaldeko haize ahula ibiliko da. Min.13° / Max.26°.

(euskalmet)

UDALA

Obrako materialak birziklatzeko planta jarriko da Zarkumendegin

Udalak, 12 urteko alokairuan jarriko du partzela. Operazioa, Astigarraga Lantzenen bidez egingo du eta enpresak Udalarekin daukan zorraren zati bat ordaintzeko balioko duela azaldu dute.

ZARKUMENDEGIKO partzela batean, obra eta eraipen (derribo) hondakinak kudeatzeko planta bat jarriko da. Udalak alokairuan jarriko du partzela hori eta Astigarraga Lantzeneko Administrazio Kontseiluak urriaren 17an onartu zituen alokairuko pleguak. Kontratua, 180.000 euro gehi BEZan baloratu da eta 12 urteko alokairu kontratua izango da. Adjudikatzen den momentuan ordaindu beharko da kopuru guztia. Operazio honekin, Udalak adierazi du, Astigarraga Lantzenek Udalarekin daukan zorraren zati bat ordainduko duela.

Gipuzkoako lehenengo planta Zarkumendegiko planta horretan, obrako hondakinak jaso eta gestionatuko dira. «Helburua da, hondakin horiek birziklatzea. Gipuzkoan mota honetako lehenengo planta izango da. Gaur egun, zabortegietan pilatzen diren hondakin hauei beste irtenbide jasangarriago bat emateko aukera paregabea da. Honekin, argi geratzen da berriz Astigarragak ingurumenarekin eta hondakinaren kudeaketa jasangarri eta egokiarekin duen kon-

promisoa, Astigarraga eta Gipuzkoa berdeagoak eta jasangarriagoak nahi ditugulako», azaldu du Gobernu Taldeak.

Hormigonera ez Plegu hauekin, aurreko legegintzaldian Zarkumendegiko beste partzela baterako zeuden planak «zokoratu» direla nabarmendu dute: «Pasa den legegintzaldian, partzela hura saltzea aurreikusten zen, bertan hormigonera bat jartzeko. Udaleko idazkari-kontuhartzaileak salmenta pleguen aurkako txostena aurkeztu zuen. Iraganeko ereduak alboratzeko garaia dela uste dugu». Planta berria, Udaleko idazkari eta zerbitzu juridikoen oniritziarekin egin dutela gaineratu dute.

Jarduerak sortu ditzakeen eraginen aurrean, kontrol zorrotzak aplikatuko dituztela argi utzi dute. Eta gaineratu: «Alokairu kontratua izanik, herriarentzat jarduera hain mesedeko ez balitz, partzela hori berreskuratzeko aukera izango du Udalak. 12 urteak pasata, berriz erabaki ahalko da zer egin. Aurreko legegintzaldiko plangintzarekin, salmenta burututa, ez zegoen horrelako aukerarik.

Beraz, ez gaude betirako «kondena» baten aurrean». Enplegua sortzeko ere baliagarria izango dela azpimarratu dute.

Eragin ekonomikoa Operazio honek izango duen eragin ekonomikoaren garrantzia azaltzeko, Astigarraga Lantzenen bilakaera ezagutu behar dela nabarmendu dute: «Astigarraga Lantzenek milioietako galerak izan ditu, EAJ eta Hileko Udal Gobernuak bultzatutako ereduaren ondorioz. Galeren ibilbidea eten zen Gobernu aldatari esker, 2012an. Besteak beste, Astigarraga Lantzen erreskatatzea erabaki genuen, astigarrak guztien kontura, 579.686,19 euroko ekarpena eginez. Erreskaterik gabe, enpresak hondoa jo behar zuen, ordura arte Udalak, eta ondorioz astigarrak guztiok, jarritako dirua eta ondasunak galtzeko arriskuarekin. Plegu hauekin, zorraren zati bat ordainduko da. Udalaren helburua da, ahalik eta azkarren guztia errekupe-ratzea. Dena kobratutakoan, Astigarraga Lantzen desagerraziko da, gutxi batzuen interreserako sortu ziren «txiringitoe-ekin» bukatu behar delako». ||



Umeentzako eta helduentzako antzerki bana izan dira asteburuan. Argazki gehiago, interneten.

ANTZERKIA

Umorean joan da asteburua

Antzerkiak gozatzeko aukera izan dute asteburu honetan bai helduek, bai umeek ere. Larunbatean, algarra ederrak egin zituen batek baino gehiagok *Hiru* antzeztanarekin. Umeek, *Mollie Malonen ipuin sinestezina* ezagutzeko aukera izan zuten igandean. ||

PLENOA

Alkatetzak Elgopebiren inguruan galdetuko die alderdiei, Plenoan

Plenoa izango da bihar 19:00etan eta besteak beste, Alkatetzak mozio bat aurkeztea erabaki du Elgopebi kasuaren inguruan, hainbat puntu argitzeko. Alkatetzak hainbat galdera egingo dizkie Udal talde politiko guztiei eta 20 eguneko epea izango dute erantzuteko. Galdera batzuk: 1995eko maiatzeko hitzarmena sinatu zenean, zein zen indarrean zegoen Hirigintza Arautegia? Zergatik ordaindu zen diru publikoarekin Udalak doan jaso behar lukeen errepide bat? Zergatik ez ziren bete hitzarmeneko baldintzak 1995etik 1999ra? Denera, 12 galdera dira. AP-8 autobideko Garraioaren Zentroari buruz eta zerga fiskalei buruz ere ariko dira biharko Plenoan. Eta beste 4 mozio ere bozkatuko dituzte. ||

GURE ESKU DAGO

Gure Txokoa inauguratuko dute, igandean

Gure Esku Dago burubelari ari da lanean, azaroaren 8ko mosaikoari begira. Horrez gain, Gure Txokoa inauguratuko dute igandean 13:30etan, Joseba Barandiaran Plazan. Gure Txokoa plazan egongo den informazio guña bat izango da. Bertan, Gure Esku Dagori buruzko ekintza guztien informazioa jarriko dute: kartelak, oharrak... Igandean bertan, mosaikorako tiketak erosi ahal izango dira (12:00-14:00). ||

UDALA

Bi batzorde bilera, gaur: Kultura eta Euskara; Obra eta Zerbitzuak

Bi batzorde bilera izango dira gaur. Alde batetik, Kultura eta Euskara Batzordeko bilera izango da 16:30etan, kultur etxeko bilera gelan. Bestetik, Obra eta Zerbitzuetako Batzordeko bilera izango da 17:00etan, Batzar Gelan. ||

PLAZA DANTZAK

Dantzaldi gidatua, igandean

Azarotik aurrera ekingo dio berriz Astigarrak Plaza Dantzen saioari. Lehenengo saioa, igande honetan izango da, 12:00etatik aurrera. Dantzaldi gidatua eskainiko du Astigarrak, Joseba Barandiaran plazan. ||

FUTBOLA

Berdinketak, azken momentuan ihes

Talde moreak ezin izan zuten punturik ekarri Umietatik. 3-1 galdu zuen. Ligako liderra nagusi izan zen. Mundarrok 3 partidu daramazki jarraian, punturik irabazi gabe. Gutxienez berdinketa lortzeko lan egin zuten, baina Egoitz Sayar entrenatzailearen esanetan, «berriz, partidua oparitu egin zuten azken minutuetan». Lehenengo zatia 1-1 berdinduta bukatu zen, Beñat Mendibururen golari esker, eta bigarren zatian nahiko pareko ibili ziren, azken momentura arte. ||

SASKIBALOA

Garaipenik ez, asteburu honetan

Saskibaloiko hiru talde nagusiek galdu egin zuten asteburuan. Euskal Liga bigarren mailako mutilek gutxiatik galdu zuten Erroibide Irunen aurka: 44-45. Neskek, maila berean, 56-63 galdu zuten Murkilen aurka eta probintzialek, 51-69 galdu zuten derbia, Hemaniren aurka. ||

KIROLA - ASTEBURUKO EMAITZAK

FUTBOLA		SASKIBALOA	
Ereag. Preferentia	Umietatik/Mundarro	3-1	2. E. Liga mutilek
Ohorezko jabetza	Mundarro/Lesgoak	3-0	2. E. Liga neskek
Liga tuberna	Herbieren/Mundarro	0-1	Probintzialek
Ohorezko kadetea	Afargak/Mundarro	2-1	Junkoak
Liga kadetea	Mundarro/Zarautz	0-0	Kadete mutilek
Ohorezko infantil	Mundarro/Serze	1-0	Kadete neskek
Liga infantil	Mundarro/Jesulinas	4-1	ESKU PELOTA - Gipuzkoako banakako txapelketa
Infantil txiki	Afargak/Mundarro	3-1	Infantilek
Abituek	Mundarro/Koizue	9-1	Infantilek
			Mundarro-La Salle/Erroibide Irun
			Mundarro-La Salle/Murkil
			Mundarro-La Salle/Hemari
			Mundarro-La Salle/Olano
			Mundarro-La Salle/Galerri
			Murkil Zapiak/Olano
			Harpe/Garri Urtegarain

Argazkiak: Xalima